

BERTSO BERRIAK

Xabier Paga

Amak semeari jarriak



IÑIGO AZKONA

I

Entzun artean danba atean eta goizeko zazpiak gehiegi ez du babesten justu manta beltzaren azpiak. Orduan baino ez du hartzen lo gau gabeko amestiak, baina argiak zulatzen ditu etxeko gela guztiak; pertsianaren beste aldetik sartu nahi du eguzkiak zuloetatik barrote gisa sartzen baitira izpiak.

II

Ene kuttuna, zer moduz zaude? Etorri altzora, Urko, amatxok zerbait esan nahi dizu ez duzuna sinistuko: gauean alde egingo dugu denak lokartu orduko eta ez gara sekula berriz Algortara bueltatuko... negarrez hasi arren ideia ez duzulako gustuko, erabakia hartuta dago eta ez dut aldatuko.

III

“Zergatik joan behar dugu ba?”
duda nabari zaizunez isil-isilik gelditu zara nirekiko begirunez. Zure lekua, zure etxea, leku hau da zure ustez eta ez duzu ulertzen zertan egin nahi dudan nik ihes, baina oraindik umea zara dena ulertu ezinez: galdera ez da, “zergatik”, seme, baizik eta “zergatik ez”.

IV

Ez duzu argi zein asmo dudan ezta geldituko garen, baina afari gozo batekin eman didazu atsedean: azkar amaitu guztia eta lokartu zaitez lehenbailehen ea ekaitza iristerako aterpe onean zauden. Ni sukaldean eseriko naiz dena garbitu ondoren, ea zu berriz esnatzerako eguzkia irteten den.

V

Mantsotzearen alde ez dauden erlojuaren orratzak, beheko krisketa ireki eta entzuten diren urratsak, gerrikoaren marka moreen estalki ez diren galtzak, manta gainean jarri ezean markatu zitezkeen hatzak, arnasa eten nahiko luketen lepo gaineko behatzak... ez dakit nola izan ditudan orain arteko zalantzak.

VI

Piztia lana amaitu eta sartu da bere zulora, baina tartean esnatu zaitu, piztu du negar-bolbora: Lasaitu, Urko, hementxe nago, etorri nire altzora, ustekabeen, ordea, ezin altxatu zaitzaket gora, minak indarrak ahitzen dizkit sorbaldatik ukondora agian orain dauzkadan zauri beltzengatik izango da.

VII

“Ez dut joan nahi, ez dut joan nahi”
oihu dagizu ozenki niri, ordea, barruak diost, “behingoz atea ireki”:
komeni zaigun bidea zein den hautatzen baldin banekil!
Orain artean amatxok dena egiten zuen ederki, baina etxeko erabakiak neuk hartuagatik beti inoiz ez nuen zure aitak ni jipoitzea erabaki.

VIII

Zurrunga hotsa eta bihotza izuzko takikardian, karroan sartu eta tapatu, gertu gaude atarian. Ez dut begirik bota atzera, damurik ez aurpegian, kalera irten eta metrora bultzatu zaitut abian. Ez dut ulertzen, ez dakit nola ihesaren histerian seguruago sentitzen naizen etxetik at gauerdian.

IX

Metrora igo eta astiro loak hartu dizu gaina ea urruntzen zaigun urrunen heriotzaren kodaina; agian ondo ez da irtengo ihesaren artimaña baina gaur lasai egin lo, Urko, hemen duzu bizkartzaina. Erabakia bion artean hartzea hobe zen baina badakit maita zintzakedala bertan gelditzeko aina.

DOINUA: “Arratsaldeon eta musu bat”.